



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO UZTAILAREN 31N BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Uztailaren 31n, eguerdiko 14:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz, alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Javier Auza eta Iker Isiegas.

BERTARATU EZ DIRENAK: Alaia Etayo, Micaela Elizalde eta M^a Mar Ansorena

14:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dagoen gai bakarri lantzeari ekin diote bildutakoek.

GAI ZERRENDA

1.- Iharduera ekonomikoen gunerako argi indarraren hartunea. Obra esleitzeko pleguaren onespena.

Alkateak azaltzen du industria gunerako argi hartunea egiteko behin betiko proiektua ez da oraindik jaso, naiz eta gaurko eskatu ingeniariari, 2024-2025 urteko dirulaguntza deialdirako aurkeztutako memoria aintzat hartuz, obra bi zatitan atera behar da. Alde batetik obra zibila, zangak egin, azpiegiturak eta beste eta beste aldetik, hartunea bera eta transformadorea jarri. Dirulaguntzarako bi obra hauek sartu dira eta baita ere duela hiru urte iberdrolak egindako lanak 36.000 euro ingurukoak eta hartunea egiteko errepidea gurutzatzeko lanak, jada eginak daudela.

Hortaz aipatu bezala bi plegu prestatuko dira, batean obra zibila esleitzeko eta bestean hartunea eta transformadorea.

Esleipena modu irekian egitea adosten dute ere bildutakoek, 2018/2 Kontratu Publikoen foru legearen 72. Artikulua jarraituz

Proposamenak aurkezteko epea abuztuaren 31a arte luzatzea proposatzen dute bildutakoek

Balorazio mahai ondokoek osatuko dute:

Santos Etxegia lehendakaria

Bokalak, Julen Beunza, Iker Isiegas eta Alinea Ingenieria enpresako teknikoa, proiektua idatzi baitute.

Balorazio irizpide bezala, aurreko obran erabilitako berdinak jartzea adosten dute bildutakoek, hots hauek:

Proposamen teknikoa: gehienez 20 puntu.

Obraren deskribapen memoria: gehienez 10 puntu.

Obraren planifikazioa : gehienez 10 puntu.

Ingurugiroarekin lotutako irizpideak eta irizpide sozialak : gehienez 10 puntu.

Gehienez 3 puntu emango zaizkie gizarteratze- eta laneratze-zentroen eta/edo enplegu-zentro berezien bidez kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko bat azpikontratatzeko konpromisoa hartzen duten lizitatzaillei. Puntu 1 emango zaio azpikontratazioa eskaintzen duen lizitatzailari, esleipen-prezioaren 100eko 5ean gutxienez; 2 puntu azpikontratazioa eskaintzen duen lizitatzailari, esleipen-prezioaren 100eko 10ean gutxienez; eta 3 puntu azpikontratazioa eskaintzen duen lizitatzailari, esleipen-prezioaren 100eko 15ean gutxienez.

- Gehienez ere 5 puntu emango dira parte hartzen duten enpresek kontratua gauzatuko duten langileei sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak gutxienez 8,00 ordu egiteko konpromisoa hartzeagatik, indarrean dagoen araudian eta dagokion hitzarmenean berdintasunaren eta kontziliazioaren arloan aitortutako eskubideei dagokienez. Balorazioa egiteko, ekintzan emandako ordu-kopurua, edukia, programazioa eta irakasteko erabilitako langileak hartuko dira kontuan.

- Gehienez 2 puntu emango dira aztarna ekologikoa murrizteko neurriak gauzatzeagatik edo ingurumenaren arloan jardunbide egokiak hartzeagatik.

Eskaintza ekonomikoa: gehienez 50 puntu.

Berme epearen luzapena: gehienez 20 puntu.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dituzte iharduera ekonomikoen gunera argi hartunea egiteko obren pleguak aipatutako balorazio irizpideak eta prozesua martxan jartzeko agintzen dute Nafarroako kontratazio portalean iragarkia jartzearekin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 14:30ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.